

[EUS.] Gaur, Medicis enpresaren lokalaren aurrean egiten dugu prentsaurreko hau. Nafarroako Osasun Zerbitzuak zentro honetara bideratzen ditu lesio eta patologia jakin batzuk diagnostikatzeko behar diren irudi-proba ohikoenetako batzuk (erresonantzia magnetikoa, ekografiak,...). Osasun – zentroetako ekografoek hautsa pilatzen duten bitartean.

Euskal Herriko eskubide sozialen kartatik, osasun-sistema publikoak egin beharko lituzkeen jarduera askoren deribazioak, azpikontratazioak eta kanporatzean salatu nahi ditugu. Finean, jarduera hauen pribatizazioa salatu nahi dugu prentsaurreko honetan. Izan ere, zentro pribatuetara deribazioak finantziatzen diren bitartean, sistema publikoak gero eta pisu handiagoa galtzen du aurrekontuetan.

Agerraldi honen bidez, Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzutako Intersindikalak (LAB, CCOO, UGT, ELA eta SAE) eta Nafarroako Osasun Plataformak martxoaren 15, 18 eta 23rako deitutako mobilizazioetan parte hartzeko deia egin nahi diegu herritarrei.

CUNren sistema publikoaren banpirizazio tradizionalari, San Miguel klinikakoari, San Juan de Dios klinikakoari, beste negozi batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola Medicis zentroa, Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuko kudeatzaileen eskuzabaltasuna dela eta; izan ere, lankidetzara publiko-pribatuaren aldeko apusta egiten dutela esaten badute ere, aurrekontu publikoen parasitazioan eta empresa horietako enplegu- eta lan-baldintzen okertzea gauzatzen dute errealitatean.

Apustu pribatizatzaile hauekin...:

- Lehen mailako osasun arreta zerbitzuari uko egiten zaio, San Joan De Dios-en mesedetan
- Erresidentzietako adineko pertsonen osasuna ez da aintzat hartzen, eta multinazionelen eta inbertsio-funtsen negozioen onura Gizarte Eskubideen Sailak finantziatzen du.
- Osasun-sare publikoan ikertzeko finantza-baliabideak minimizatzen dira, eta bitartean, zentro pribatuetako berrikuntzarako eta garapen ekonomikorako ikerketak babesten ditu Osasun sailak.
- Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan transplanteak egiteko baliabideak mugatzen eta deskapitalizatzen dira, Opuseko Klinikari garantzen laguntzeko helburuarekin.
- Eta abar luze bat.

Nafarroako gizarteak badaki pribatizazio honi nola aurre egin. Ospitaleko sukaldean itzultzeak, CUNeko pertsonalari eta haien familiei osasun-arreta emateko kontratuak baliogabetzeak eta bateraezintasun medikoen anulazioaren paralizazioak adierazten digute zeinen garrantzitsua den gizarte-mobilizazioa; deskapitalizazio eta pribatizazio arriskuan dagoen osasun-sistema publikoaren defentsan.

Tamalgarrira da legebiltzar-taldearen artean lortutako azken akordio politikoak, estrategia pribatizatzearen aurrean, osasun-sistema publikoa blindatzeko beharra ez jorratzea.

Aipatutako guztiagatik, Nafarroako gizarteari dei egiten diogu datorren asteazkenean, hilak 15, 11:00etan osasun-zentroetan kontzentratzeko. Larunbatean, hilak 18, 17:30tan Golem zinemetatik aterako den manifestaziora joateko, eta gure babesa adierazi nahi diogu, hilaren 23an Nafarroako Osasun Zerbitzuan egitekoa den grebari.